

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilbao Zerbitzuak****Bilboko Udal hilerrien Araudia. Hasierako onarpenaren iragarkia**

Bilbao Zerbitzuak-eko Administrazio Kontseiluak, 2025eko uztailaren 4an egindako ohiko bilkuran, Bilboko udal hilerrien Araudiari hasierako onespena emateko erabakia hartu du.

1. Kontuan hartuta Bilbao Zerbitzuak bere burua antolatzeko eta arautzeko ahalmena duela hilerri-zerbitzuen kudeaketa arautzeko, Bilboko udal-hilerrien erregelamendua onartu da hasieran, eta bertan sartu dira Elkarrekin Bilbaok egindako estimatutako zuzenketak, osorik edo zati batean, espedientean jasotako baldintzetan.

2. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bilbao Zerbitzuak egoitza elektronikoan iragarriak argitaratuz onartutako espedientea jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek egoki iritzitako alegazioak, erreklamazioak edo iradokizunak aztertu eta aurkeztu ahal izan ditzaten.

3. Gardentasunari, informazioa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 53. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, erregelamendu horren testu osoa argitaratuko da Bilbao Zerbitzuak webgunearen gardentasun-atarian, herritarrei hasiera batean onartu den Bilboko Udal Hilerrien Erregelamenduaren gaia eta edukia ezagutzen laguntzeko eta horri buruzko alegazioak edo iradokizunak egiteko aukera sustatzeko.

4. Bilboko Udal Hilerrien Erregelamendua behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamazio, alegazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, eta aurkezten badira, Erakundearen Administrazio Kontseiluak ebatziko ditu.

5. Prozedura-ekonomia eta eraginkortasuna direla eta, une bakoitzean Bilbao Zerbitzuak-eko lehendakaria den pertsonari ahalmena ematen zaio Bilboko udal-hilerrien araudian sartzeko nahitaez aplikatu behar diren eta betekizunak aldatzea edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzea dakarten lege-aldaketei soilik erantzuten dien edozein motatako aldaketak, eta aldaketa horien berri berehala emango zaio Erakundearen Administrazio Kontseiluari, berresteko.

Zamudion, 2025eko uztailaren 22an.—Zuzendari Kudeatzailea, José Antonio Fernández Celada